

Lagun maiteok,

Jakin dakizuen bezala, Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendari kargua utziko dut egun gutxi barru. Hori dela-eta, ondoko lerro hauek eskaintzen dizkizuet, agur modura.

Atsegin handia izan da niretzat erantzukizun honetan lanean aritu ahal izatea. Eginahal, esfortzu eta lan handiko egun ugari igaro dira, eta horietan guztietan une kitzikagarriak bizitzeko aukera izan dut, zailtasun handikoak ere bai. Esperientzia aberasgarria izan da niretzat eta etengabeko ikasbide, zentzu guztietan.

Urteotan, grinaz ekin diot lanari, Euskadiko gazteentzat onena lortzeko asmoz, batzuetan, egoki, beste batzuetan, oker, edozein gizakik bezala. Beti ahalegindu naiz arduraz, gardentasunez, zintzotasunez, errespetuz eta zuzentasunez jarduten, adosten eta tolerante izaten. Nolanahi ere, barkamena eskatu nahi dut egin nitzakeen akatsengatik. Hartu ditudan erabakiak onenak izango zirelakoan eta une bakoitzean nuen informazioan oinarrituta hartu ditut beti.

Agur esatea suertatu zaidan une honetan, lehenik, lankide izan ditudan arduradun politikoek nigan izan duten konfiantza eskertu nahi nuke, proiektu hau konfiantzaz, askatasunez eta errespetuz garatzeko aukera eman baitidate. Bigarrenik, Gazteria Zuzendaritzako eta Gazteen Euskal Behatokiko langileek erakutsi duten egite ona, profesionaltasuna eta dedikazio osoa eskertu nahi dut. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet gure proposamenen aurka egon zitezkeen lagunei ere. Guztiengandik asko ikasteko aukera izan dut, eta pertsona gisa hazten lagundu didate.

Era berean, irekitzear dagoen ziklo politiko berri honek Euskadiko gazteen egoera hobetzen lagunduko duen esperantzan, zorte handia opa diet helduko direnei.

Esker mila eta adiorik ez

NATXO RODRÍGUEZ